

## PRENTSA OHARRA

# Teknikerrek bere eskaintza teknologikoa indartu du Madrildo egoitza berriarekin

- *Zentro teknologikoak atzo inauguratu zuen, Luis Uriarte zuzendari nagusiaren eskutik, enpresei eta hainbat eragileri beren soluzioen ikuspegi orokorra eskaintzeko eremu bat.*
- *Repsol, CESA/Héroux-Devtek, Airbus, Sener, Aernnova, Aciturri, Tecnatom, Iberdrola edo John Deere moduko erreferentziazko enpresek lagundu zioten Teknikerri aurkezpenean*

[Eibar, 2022ko urriak 28] – Basque Research and Technology Alliance (BRTA) erakundeko kide den [Tekniker](#) zentro teknologikoak Madrilen aurkeztu zuen bere egoitza atzo. Instalazio horiekin, bere eskaintza teknologiko zabala enpresetara hurbildu nahi da eta enpresa nagusiekin elkarreraginean jardun. Hurbilketa hori han kokatutako euskal enpresei lagun egitean eta eremu horretan geografikoki kokatutako interesak erakartzean dago oinarrituta.

Getafen, [SYMBCO](#) Negozio Zentroan dagoen kokaleku berriak zentroaren soluzioen ikuspegi orokorra eskainiko du, betiere gainazalen eta materialen ingeniaritzan duen espezializazio teknologiko bikainean oinarrituta; ekoizpenerako eta fabrikazio aurreraturako IKTak industiarako I+G+Bren euskarri izango dira; eta, besteak beste, osasun-, energia- eta aeronautika-sektoreetan aplikatuko da.

Erreferentziazko enpresek, esaterako Repsol, CESA/Héroux-Devtek, Airbus, Sener, Aernnova, Aciturri, Tecnatom, Iberdrola edo John Deere, Luis Uriarte Teknikerreko Zuzendari Nagusiari lagundu zioten instalazioen aurkezpenean.

“Irekiera honen bidez, ‘martxan dauden lankidetzak’ eraikitzen jarraitu nahi dugu, gure espezializazio teknologikoarekin lagundu dezakegun lekuetan industria-sarearen lehiakortasuna handitzen lagunduko duten soluzioak garatzeko”, azpimarratu du Luis Uriarte Teknikerreko Zuzendari Nagusiak.

## Ikuspegi berria

Teknikerrek bazuen Madrilen kokagune bat, batez ere industria-metrologiaren arloan irtenbideak ematera bideratutakoa. Apustua orientazio integralagoarekin berritu da, baina bokazio berarekin: hurbil egotea, irisgarriak izatea eta balioa sortzen duten harremanak eratzea.

Hemendik aurrera, han kokatutako enpresa eta eragileekin harreman estua izateko eta I+G+B arloan premien eta soluzioen arteko topagunea izateko diseinatu eta antolatutako egoitza berria izango du zentroak.

Funtzionamenduari dagokionez, David Gómez Teknikerreko Zerbitzu Teknologikoetako zuzendaria izango da egoitza berria zuzentzeko arduraduna, eta bertako langile iraunkorrak eta sortzen diren premien arabera txandakatuko diren teknikariak izango ditu.

## Teknikerri buruz

Tekniker fabrikazio aurreratuan, gainazalen eta materialen ingeniartzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

### Informazio gehiago izateko:

**GUK** ► Unai Macias

[unai@guk.eus](mailto:unai@guk.eus) | Tel. 690 212 067